

Sagardotegiko hamabosgarren belaunaldia da Hur eta Joseba Astarberena; jantokian ikusi ahalko da SagarArte galeria. JON URBE / FOKU

Astigarragako Astarbe sagardotegiak arte galeria bat jarri du, 455. urteurrenaren harira; gaur irekiko dute, eta uda bitartean izango da ikusgai sagardotegian.

# Upel ondoko arte galeria

**Izaro Zin[illegible]unegi Barandiaran**
*Astigarraga*

Familia bereko hamabost belaunaldik idatzi dute Astarbe sagardotegiaren historia. Astigarragako (Gipuzkoa) Mendiola baserrikoak dira 455 urteko bidearen protagonistak. Sagarberri jaialdia egingo dute gaur urteurrena ospatzeko: besteak beste, sagarraren eta sagardoaren kondairei buruzko SagarArte galeria irekiko dute, janedanak eta musikak lagunduta.

Ospakizuna eta sagardoari lotutako artea uztartuko ditu Astarbek: «Sagardotegiak euskal kulturaren ispilu eta bilgune izan dira: bertso saioak, bola eta toka jokoak... egin izan dira», nabarmendu du Hur Astarbe Galparsorok, hamabosgarren belaunaldiko hiru anaietan bigarrenak. Duela bost urte hasi ziren sagardotegian kultur sormena bultzatzen, 450. urteurrenaren bueltan. Oraingoan, erakusketa bat antolatu dute: SagarArte galeria. Gaur irekiko dute, 12:00etan.

Hainbat artistaren lanak bildu dituzte: Xebas Larrañagaren *How Deep Is The Ocean* brontzezko eskultura, Iñaki Villanuevaren *SagarZaina* sagarrondo zizelkatua, Anna Rocaren *Sagardoaren Belaunaldiak* ikatz zirizko inprobisazioa, Aitor Zarzueloren *Idunn* film laburra eta Paul Lataburuen *Sagarra-Manzana* ilustrazio seriea. Musika ere ez da faltako, besteak beste, Izaroren kontzertua izango baita. Dena, pintxoak eta sagardoa lagun.

### Erakusketa ibiltaria

«Belaunaldiz belaunaldi pasatutako usadioa izan da», adierazi du Joseba Astarbe Galparsorok, hamabosgarren belaunaldiko gazteenak. Sagardogintzan lan egiten du, anaiarekin batera. Aurreko belaunaldien ohiturari jarraitu diote biek: «Odolean daramagu; hemen jaio, hazi eta bizi gara. Sagardogintza maite dugu, bere alde on eta txarrekin. Gure nortasunaren zati handi bat da».

Duela bi hamarkada ezagutu zuten Astarbe anaiek euren sagardotegiaren historia: «Aitak sagardoa betidanik egiten zela esaten zigun. Gipuzkoako Sagardogile Elkartea webgune korporatiboa egiten hasi zenean, Lourdes Odriozola historialarekin harremanetan jarri ginen, eta hark ikertu zuen», azaldu du Hurrek. 1563ko testamentu bat da lehen arrastoa, haren arabera.



Hainbat arte diziplinatako lanak jarri dituzte sagardotegiko jantokian. J. U. / FOKU

Ikerketek erakutsi dutenez, balio historiko handiko sagardotegia da Astarbe: «Pasaiaraino iristen den errege bidean dago kokatuta; garai batean balea eta bakailao arrantzaleentzako sagardoa garraiatzen zen handik».

Emakumeen garrantzia ere azpimarratu du Hurrek: «Emakumea ezinbestekoa izan da; hamabost belaunalditatik zazpitan oinordekoak emakumeak izan dira».

Historia luzea edukiagatik, «lozorroan» eduki zuten hura 2013ra arte. Urte garrantzitsua izan zen hura, anaiek esan dutenez, orduan eman baitzuten eza-

gutzera historia; A…
berria ere aurkezt…
dun sagardoa merk…
kin batera. Hain j…
urte inguru proba…
doren ekoitzi zuen…
kin egingo diete o…
ko festara bildutak…

> **Sagardotegiak … kulturaren ispi… bilgune izan di… saioak, bola eta … jokoak... egin i…**
> **Hur Astarbe Galpars…**
> Astarbe sagardotegiko…

Sagarberri jaialdi… buru-belarri ibili da… korreta Arano Astar… eta komunikazio a… «Urtean gai bat la… aurten, sagardoa eta… kondairak landu di… rrak garrantzi hand… kultura guztietan, ba… kal Herria sagarra… guztiaren erdigune… nahi dugu». Arizkor… duenez, artista gazte… eman nahi izan diete… ko arte adierazpide… ere. Irekieran izango… leak eurak ere.

Urteurrenak urte… dotegiko ohiko lane… belarri dabiltza as… uda ate joka denean… komertzializazioan… lantzen ari dira, ha… botilaratzen ere. Bes… ko lanak ere ez ditu… tertu, udazkeneko s… tea eta negu-udab… denboraldia, alegia… tan, gainera, ikerket… tzan eta garapenean… rezia egiten ari dire… Hurrek; esate bater… ekoizten zituzten… Astarbe sagar bark… kuratzeko lanetan…

Sagarberri jaia he… gotsu daude anaiak… eguna» izango ba… udako denboraldi… ere izango da gaur… ruetan irekitzen du… ere aldatzen dute… tuko du jantokia… tan, baina ez da h… beste herri batzue… ta gero: «Erakuske… tea da asmoa, eusk… honetan bakarrik e… esan du Arizkorreta… an Mundakan (Bi… dela aurreratu du… raian beste herrien… ko du.